



**KUADRILLAKO BATZARRAK 2023KO  
ABENDUAREN 21EAN EGINDAKO EZOHIKO  
BILKURAREN AKTA.**

Santikurutzeko Kanpezun, 2023ko abenduaren 21ean, Arabako Mendialdeko Kuadrillaren egoitzan, Kuadrillako Batzarra bildu da, ezohiko bilkuran eta lehenengo deialdian, Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jauna buru dela, eta honako batzarkideak elkartu dira:

Betolaza Pinedo, Juan José  
Elorza Lorenzo, Lucía  
Gaintzarain González de Durana, Urtzi  
Moraza Pérez, Enrique Javier  
Nuñez Murillo, Rafael  
Quintana Urrea, Miryam  
Ramos Fernández, Gemma  
Sáez de Ocariz Samaniego, Unai

Larraitz Waliño Arana andreak ezin etorria adierazi du.

Era berean, Álvaro Castillo Cordero jauna, Arabako Mendialdeko Kuadrillako gerente-letradua, bertaratu da.

Halaber, Álvaro Albaina Sáez de Vicuña, erakundeko animatzaile soziokulturala, bertaratu da, gai-zerrendako bere arloko puntuak aztertzeko.

Presidenteak bilkura hasi du, 13:07ean, eta jendurrekotasun jarraitua, hasteko beharrezkoa den bertaratze-quoruma egiaztatu ondoren, TAOLeko 46.2 c artikulua, AJAko 90. artikulua eta Kuadrillei buruzko 63/1989 Foru Arauaren 25. artikulua arabera, gai-zerrendan jasotako honako gai hauek aztertu dira:

**1.- AZAROAREN 2AN EGINDAKO OHIKO  
BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA**

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE  
JUNTA DE CUADRILLA CELEBRADA EL DIA 21  
DE DICIEMBRE DE 2023.**

En Santa Cruz de Campezo a 21 de diciembre de 2023, en la sede de la Cuadrilla de Montaña Alavesa, se reúne la Junta de Cuadrilla, en sesión extraordinaria y en primera convocatoria, bajo la presidencia del Sr. D. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz, y concurren los junteros y las junteras siguientes:

Betolaza Pinedo, Juan José  
Elorza Lorenzo, Lucía  
Gaintzarain González de Durana, Urtzi  
Moraza Pérez, Enrique Javier  
Nuñez Murillo, Rafael  
Quintana Urrea, Miryam  
Ramos Fernández, Gemma  
Sáez de Ocariz Samaniego, Unai

Excusa su asistencia la Sra. D<sup>a</sup>. Larraitz Waliño Arana

Así mismo, asiste a la Sesión D. Álvaro Castillo Cordero, gerente-letrado de la Cuadrilla de Montaña Alavesa.

Igualmente, Álvaro Albaina Sáez de Vicuña, Animador Sociocultural de la entidad para tratar los puntos que son de su área del orden del día.

Abierta la Sesión y declarada pública por la presidencia a las 13:07 horas, previa comprobación del quórum de asistencia preciso para que pueda ser iniciada, de acuerdo con los artículos 46.2 c de la LBRL, 90 del ROF y 25 de la Norma Foral 63/1989 de Cuadrillas, se procede a conocer de los asuntos siguientes incluidos en el Orden del día:

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE DEL ACTA DE  
LA SESIÓN ORDUNARIA CELEBRADA EL 2 DE**



## BADAGOKIO

Presidenteak galdetu du ea batzarkideren batek oharren bat egin nahi duen 2023ko azaroaren 2an egindako ohiko bilkuraren aktari buruz, zeina bilkurarako deialdiarekin batera bidali baitzen.

Gemma Ramos Fernández batzarkide andreak hartu du hitza, Kuadrillan parte-hartze handiagoa eskatzeko, batzarkide guztien parte-hartzea ez baita bermatzen ari. Presidenteak, Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jaunak, erantzun du arloak bere taldearen artean banatu direla eta herritarrei irekitako bileretan parte har dezaketela. Gemma Ramos Fernández andreak erantzun du uste duela horrek ez duela bermatzen bere taldearen parte-hartze nahikoa.

Horri dagokionez, Lucia Elorza Lorenzo andreak eskatu du talde ireki horietarako deialdiak berari ere bidaltzeko; izan ere, dirudienez, udaletara eta administrazio-batzarretara soilik bidali dira. Presidenteak kontuan hartuko du hurrengo deialdietarako.

Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako bederatzi batzarkideen aldeko botoarekin, aho batez erabaki du 2023ko azaroaren 2an egindako ohiko bilkuraren akta ONARTZEA.

## 2. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2023-2024KO GABONETAKO EKINTZEN PROPOSAMENA.

Presidenteak Álvaro Albaina Sáez de Vicuña jaunari eman dio hitza, erakundearen animatzaile soziokulturala baita eta Gabonetako jardueren proposamena kudeatu baitu.

Álvaro Albaina Sáez de Vicuña jaunak hartu du hitza, eta jarraian datorren proposamenaren berri eman du, aurreko edizioako jarduera bakoitzean izandako parte-hartzearen datuak zehaztuta.

Enrique Javier Moraza Pérez jauna ados

## NOVIEMBRE

El presidente pregunta si algún juntero o juntera quiere formular alguna observación al acta de la sesión ordinaria celebrada el 2 de noviembre del 2023 que se remitió junto con la convocatoria de sesión.

Toma la palabra la juntera D<sup>a</sup>. Gemma Ramos Fernández para reclamar mayor participación en la Cuadrilla, al no estar contándose con todos los junteros/as. Contesta el presidente, D. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz, que se han repartido las áreas entre su equipo y que pueden participar en las reuniones abiertas a la ciudadanía. D<sup>a</sup>. Gemma Ramos Fernández responde que entiende que eso no garantiza participación suficiente de su grupo.

A este respecto, D<sup>a</sup>. Lucia Elorza Lorenzo solicita que se le remitan también las convocatorias a este tipo de grupos abiertos pues, al parecer, se ha remitido solamente a Ayuntamientos y Juntas Administrativas. El presidente toma nota para futuras convocatorias.

La Junta de Cuadrilla, por unanimidad, con el voto a favor de los/as nueve junteros/as asistentes, acuerda APROBAR el al acta de la sesión ordinaria celebrada el 2 de noviembre del 2023.

## 2.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA PROPUESTA DE ACTIVIDADES DE NAVIDAD DE 2023-2024.

El presidente interviene para dar la palabra a D. Álvaro Albaina Sáez de Vicuña, animador sociocultural de la entidad, quien ha gestionado la propuesta de actividades de navidad.

Toma la palabra D. Álvaro Albaina Sáez de Vicuña y da cuenta de la propuesta que se acompaña a continuación, detallando los datos de participación en cada una de las actividades en la anterior edición.

D. Enrique Javier Moraza Pérez se muestra de



dago proposamenarekin, baina aprobetxatu du BECeko Gabonetako Parkearen jarduerarako monitoreen kopurua agian eskasa dela planteatzeko. Álvaro Albaina Sáez de Vicuña jaunak erantzun du monitore/partehartzaile ratioa betetzen dela; izan ere, partehartzaile nagusienek, hamar edo hamabi urtekoek, taldeak egiten dituzte eta ez dute dedikazio bera behar, monitoreak adin txikiagoko partehartzaileentzat aprobetxatuz.

Gemma Ramos Fernández adreak adierazi du bere taldearen abstentzioa azaldu nahi duela. Izan ere, ez du jarduera horien berri izan saio honen deialdia egin arte, ezta jarduera horiek dagoeneko zabaldu egin direnean ere. Informazio horren garrantzia azpimarratzen du, areago ekintza horien finantzaketa udalen eskutik datorrenean. Beraz, horri buruzko iritzirik eman edota antolakuntzan parte hartu ezin izana tamaltzen du.

Presidentek kontuan hartu du, eta jakinarazi du azkar kudeatu behar izan dela, datak eta presak direla eta.

Gemma Ramos Fernándezek informazio gehiago eskatu du alde zurretik, etorkizuneko egoeretarako.

acuerdo con la propuesta, pero aprovecha a plantear que el número de monitores para la actividad del Pin de Navidad del BEC quizá parece escaso. Responde D. Álvaro Albaina Sáez de Vicuña, indicando que el ratio monitor/participante se cumple, dado que los participantes más mayores, de diez o doce años, hacen sus grupos y no necesitan la misma dedicación, aprovechando los monitores para los participantes de menor edad.

D<sup>a</sup>. Gemma Ramos Fernández indica que quiere matizar la abstención de su grupo por no haber tenido constancia de estas actividades hasta la convocatoria de esta sesión, incluso cuando ya se había procedido a su difusión. Incide en la importancia de esta información, más si cabe cuando las actividades vienen financiadas de forma importante por los ayuntamientos. Por tanto, lamenta que no han podido dar su opinión al respecto ni participar en la organización.

El presidente toma nota e informa que debido a las fechas y a las prisas, se ha tenido que gestionar de forma rápida.

D<sup>a</sup>. Gemma Ramos Fernández solicita más información con antelación para futuras ocasiones.

PROPUESTA ACTIVIDADES NAVIDAD 2023-2024

ACTIVIDAD	DESCRIPCION	FECHA	PARTICIPANTES	TRANSPORTE	COSTE	MONITORES-AS
PIN NAVIDAD BEC	Parque con atracciones infantiles en el BEC de Bilbao	Jueves 28 diciembre Todo el día 09:30-21:30h (aprox)	A partir de 6 años	De diferentes localidades a Bilbao 1.594 € Autobuses Pérez Taxi Ander Catalán	Entrada 9,50€/ persona	5 monitores-as de Alaiki 1.968,09 €
SKATEPARK	Circuito con rampas y módulos para skates	Miércoles 3 enero Mañana 11:00-14:00 h **Polideportivo Lagrán	A partir de 6 años * según el nº de participantes se puede organizar en 2 turnos de 1,5h	De diferentes localidades a Lagrán 300 € Autobuses Pérez Taxi Ander Catalán	1.530,64 € Con elementos monitores y skates	2 monitores-as de Alaiki Acompañamiento bus 272€
PISTA HIELO	Pista Hielo Bakh	4 enero Mañana 09:30-14:00 h (aprox)	A partir de 6 años	De diferentes localidades a Bakh 700 € Autobuses Pérez Taxi Ander Catalán	11€/persona (entrada, patines, casco)	4 monitores-as de Alaiki 683,55 €

Cuotas en el 2022:

- Pista Hielo 15€/persona / 43 niños-niñas
- PIN 15€/persona / 93 niños-niñas
- SKATEPARK 15€/persona / 15 niños-niñas

**ARABAKO MENDIALDEKO  
KUADRILLA  
(ARABA)**



**CUADRILLA DE  
MONTAÑA ALAVESA  
(ALAVA)**

Gaia eztabaidatu ondoren, bozketa egin da, eta erabaki hau hartu da:

Debatido el asunto, se procede a la votación, adoptando el acuerdo que sigue con el siguiente resultado:

Aldeko botoak: 6

Votos a favor: 6

Betolaza Pinedo, Juan José  
Gaintzarain González de Durana, Urtzi  
Nuñez Murillo, Rafael  
Quintana Urrea, Miryam  
Ruiz de Loizaga Sanz, Eduardo.  
Sáez de Ocariz Samaniego, Unai

Betolaza Pinedo, Juan José  
Gaintzarain González de Durana, Urtzi  
Nuñez Murillo, Rafael  
Quintana Urrea, Miryam  
Ruiz de Loizaga Sanz, Eduardo.  
Sáez de Ocariz Samaniego, Unai

Aurkako botoak: 0

Votos en contra: 0

Abstentzioak: 3

Abstenciones: 3

Elorza Lorenzo, Lucía  
Moraza Pérez, Enrique Javier  
Ramos Fernández, Gemma

Elorza Lorenzo, Lucía  
Moraza Pérez, Enrique Javier  
Ramos Fernández, Gemma

**LEHENENGOA.-** Bakh izotz-pistaren, skate tailerraren eta BEC gabonetako PINaren jarduerak antolatzea, proposatutako baldintzetan.

**PRIMERO.-** Organizar las actividades de pista de hielo Bakh, taller de skate y PIN de navidad BEC en los términos propuestos.

**BIGARRENA.-** Presidenteari ahalmena ematea jarduerak gauzatzeko behar diren monitorea kontratatzeko.

**SEGUNDO.-** Facultar al presidente para que proceda a la contratación de los monitores/as necesarios para ejecutar las actividades.

**HIRUGARRENA.-** Honako kuota hauek ezarri dira jardueretan: izotz pista joateko, 15 €/pertsonako, Gabonetako PINera joateko 15 €/pertsonako eta 15 €/pertsonako skate tailerrean.

**TERCERO.-** Fijar como cuotas para las actividades 15 € en el caso de la pista de hielo, 15 €/persona en el caso del PIN de navidad comarcal y 15 €/persona en el caso del taller de skate.

**3.- EUSKARAREN EGUNA DELA ETA PROPOSATUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONAL ONESTE, HALA BADAGOKIO.**

**3.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA PROPUESTA DE DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL DÍA DEL EUSKERA.**

Presidenteak Unai Sáez de Ocariz Samaniego batzarkideari eman dio hitza, eta hark Arabako Foru Aldundiak proposatutako adierazpen hau irakurri du Euskararen Eguna dela-eta:

El presidente da la palabra al juntero D. Unai Sáez de Ocariz Samaniego, quien procede a dar lectura a la siguiente declaración propuesta por la Diputación Foral de Álava con motivo del Día del Euskera:



**"2023ko Euskararen Nazioarteko Eguna**

**"Día Internacional del Euskera 2023**

**Abenduak 3**

**3 de diciembre**

*Aurrerapenei adi egon da euskalduna historian zehar. Mendez mendeko ibilian arrastoa utzi dugu aurrerapenak eta euskara uztartuz, euskaldunon aurrerapenari eta euskararen biziraupenari eragiteko.*

*La persona euskaldun ha estado a lo largo de la historia atenta a todo tipo avances. Durante siglos hemos dejado huella combinando dichos avances con el euskera a fin de incidir en el progreso de las personas vasco parlantes y la supervivencia del euskera.*

*Inprenta asmatu zenean, "ezin inprima zaiteien uste zutenek" ikusi zuten oker zeudela: euskaraz idatzi eta inprimarazi zuen Etxeparek Linguae Vasconum Primitiae, 1545ean. Eta handik aurrera geldiezina izan zen euskarazko liburuak argitaratzea, lehen Itun Berria gertu zen Etxepareren liburutik, Joanes Leizarragak euskarara itzuli eta 1571n argitaratua. Eta horrela, gaurdaino.*

*Cuando se inventó la imprenta, "los que creían que no se podía imprimir (ezin inprima zaiteien uste zutenek)" vieron que estaban equivocados: Etxepare escribió e imprimió en euskera, Linguae Vasconum Primitiae, en 1545. Y a partir de ese hito con la impresión del libro de Etxepare, cercano al Nuevo Testamento, traducido al euskera por Joanes Leizarraga y publicado en 1571, fue imparable la edición de libros en euskera. Y así hasta hoy.*

*Euskara, mendez mende, garaian garaiko aurrerapenen konpasean daramagu euskaldunok. Edozein hizkuntza bezain gai dela frogatuz. Nahiz eta batzuk gogotik saiatu ziren XX. mendean euskara bazter genezan, gure hizkuntza hobe genuela hiltzen utzi esanez, ez zela gauza-eta bizitza modernora moldatzeko. Eta hari ere erantzun zioten euskara maite zutenek, literaturara eta kazetaritzara jasoz euskara, eta eskolatu zitezkeela gure umeak euskaraz. Gure hizkuntzari behar duen tornua eta itzala emanaz.*

*El euskera, durante siglos, ha ido al compás de los avances de la época. Demostrando que es tan competente como cualquier idioma. A pesar de que algunos, en el siglo XX, intentaron seducirnos diciendo que era mejor que lo desterráramos y dejásemos que muriera, argumentando que no era para adaptarse a la vida moderna. Y en ese contexto también respondieron quienes amaban el euskera, empleándolo en la literatura y el periodismo, y promoviendo la escolarización en euskera de nuestras niñas y niños. Dándole a nuestra lengua el giro, pero también el prestigio que precisa.*

*Gizarte-komunikabideen aroan, irrati-telebista eta egunkari-aldizkarietan zabaldu dugu euskara. Eta gaur egun, hasieran urria zena ugaltu da, eta edozein arlotako hiztunak, irakasleak eta adituak, aurkitzen ditugu euskaraz hitz egiten gure hedabideetan.*

*En la era de los medios de comunicación social, hemos empleado y aupado el euskera en revistas, periódicos, radio y televisión. Y hoy en día, lo que al principio era parco y exiguo se ha ido multiplicando, y en nuestros medios de comunicación encontramos hablantes, docentes, incluso personas expertas de cualquier ámbito.*



*Orain, digitalizazioaren aroan sartuta, beste urratsak ari gara ematen euskaraz. Hortxe ditugu lanabes berriak, hala nola, erdaldunen artean erabiltzen hasi diren itzultzaile neuronalak, .eus euskal komunitatea esparru digitalean identifikatzeko izendura, euskarazko wikipedia, euskararen adierazle sistemaren hastapenak mundu digitalean...*

*Euskararen alde, hau da, euskaldunon alde, gure aurrekoek egin zuten gauza bera eginez: gure hizkuntzak XXI. mendeko aurrerapenatarako balio duela frogatzen. Eta ederra dela euskara, gailu digitaletan ere. Adimen artifiziala dugu zain, berezko gure adimenarekin bultzatuko duguna eta horren adierazle teknologiari euskaraz irakasteko eta adimen artifizialak euskaraz egin dezan Gaitu proiektua. Hizkuntza erakargarria izan dadin egungo jendearentzat, datozen berrientzat, eta biharko euskaldunentzat. Paperezko euskara eta euskara digitala aurrera adimenari esker, berezkoari eta artifizialari.*

*Gure nahia eta erabakia euskaraz bizitza den artean, hori ez da gelditzerik izango, iraganean ere izan ez den bezala, nahiz eta lehen debeku eta oztopo handiak jasan. Euskaraz bizi nahiak indar handia du. Herri-nahi hori ziurtatzeko ezinbestekoa dugu, alde batetik instituzionalizatzea: erakundeek erabaki politikoak hartzen jarraitzea, legearen babesa eta indarra emateko. Eta bestetik, euskal hiztunon komunitateari laguntza eta babesa eskainiko dioten baliabideak sortzea eta eskaintzea, kasuan kasuko, tokian tokiko*

*Ahora, entrando en la era de la digitalización, estamos dando nuevos pasos en el ámbito del euskera. Disponemos de nuevas herramientas como los traductores neuronales que empiezan a usarse entre las personas que no emplean el euskera, la denominación de identificación de la comunidad vasca .eus en el ámbito digital, la wikipedia en euskera, la introducción al sistema de indicadores del euskera en el mundo digital...*

*Todo ello a favor del euskera, y por consonancia de las personas euskaldunes, tal y como lo hicieron nuestros antecesores: demostrando que nuestra lengua puede emplearse también en los avances del siglo XXI. Y que el euskera es hermoso, incluso en los dispositivos digitales. La Inteligencia Artificial nos espera; esa IA que impulsaremos con nuestra propia inteligencia, tal y como lo demuestra el proyecto Gaitu dispuesta a que la tecnología aprenda nuestro idioma y permita que la Inteligencia Artificial "hable" en euskera. Para que nuestra lengua sea atractiva para la ciudadanía actual, para las personas que se acerquen a nuestro pueblo y para las y los euskaldunes del mañana. El euskera de papel y el digital avanzando de la mano de la inteligencia, la humana y la artificial.*

*Mientras nuestra voluntad y decisión sea vivir en euskera, esta corriente no podrá paralizarse, como tampoco lo ha sido en el pasado, a pesar de las fuertes prohibiciones y obstáculos. El deseo de vivir en euskera es muy fuerte. Para asegurar esa voluntad es necesario, por un lado, institucionalizar nuestra lengua: seguir tomando decisiones políticas por parte de las instituciones para dar cobertura y vigencia a la Ley. Y, por otro lado, crear y ofrecer recursos que ayuden y apoyen a la comunidad vasco parlante, atendiendo a las situaciones y contextos locales/comarcales*



*egoera eta testuinguruei so eginda.*

*en cada caso.*

*Horrelaxe, gizartearen arnasa, euskara erakargarria eta baliotsua izateko eguneroko bizitzan bai heldu bai gazteentzat, etxean eta lagunartean, lanean eta aisian bermatzeko aukera izango du euskarak. Atzo eta gaur, gaur eta bihar. Paperezko euskara eta euskara digitala, giza adimena eta adimen artifizialerako gai XXI. mendean ere.”*

*De esta manera, el euskera tendrá la oportunidad de garantizar el respiro social, el atractivo y su valor en la vida cotidiana de las personas adultas y jóvenes, en el ámbito doméstico y el social, en el trabajo y en el ocio. Ayer y hoy, hoy y mañana. El euskera en papel y digital, la inteligencia humana y la inteligencia artificial también en el siglo XXI.”*

Bertaratutako bederatzi batzarkideek aho batez onartu dute euskararen nazioarteko eguna dela-eta proposatutako adierazpena.

Se aprueba por unanimidad de los nueve junteros y junteras asistentes la declaración propuesta con motivo del día internacional del euskera.

**4. AZAROAREN 25erako 2023ko ADIERAZPENA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNARI BURUZKOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**4. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PARA EL 25N, DÍA POR LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES 2023**

Presidenteak Miryam Quintana Urrea batzarkideari eman dio hitza, eta hark EUDELeK proposatutako adierazpen instituzional hau irakurri du:

El presidente da la palabra a la juntera Miryam Quintana Urrea, quien procede a dar lectura a la siguiente declaración institucional propuesta por EUDEL:

*“AZAROAREN 25erako 2023ko ADIERAZPENA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNARI BURUZKOA*

*“DECLARACIÓN PARA EL 25N, DÍA POR LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES 2023*

*Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egun honetan, azaroak 25, sexu-indarkeriak adingabeen artean gero eta eragin handiagoa duela azpimarratu eta arreta jarri nahi dugu, indarkeria mota hori ikusezina eta normalizatuena baita, eta urtetik urtera gora egiten jarraitzen baitu.*

*Este 25 de noviembre, día internacional para la eliminación de violencia hacia las mujeres queremos poner la atención en la creciente incidencia de la violencia sexual entre menores como una de las formas violencia que resulta más invisibilizada y normalizada, y que sigue aumentando de año en año.*

*Hainbat txostenen arabera, sexu-delituen biktimen % 40 adingabeak dira, gehienak neska eta nerabeak. Adingabeen sexu-askatasunaren aurkako delituen ehunekoak ere gora egin du. Laguntza espezializatuaren eskaerak ere gora egin duten arren, datuek erakusten dute neskek zailtasun handiak dituztela indarkeria-adierazpen jakin batzuk antzemateko beren portaeran, bai berdinen taldean, bai harreman afektiboetan.*

*Según diferentes informes, hasta un 40% de las víctimas de delitos sexuales son personas menores de edad, mayoritariamente niñas y adolescentes. Aumenta también el porcentaje de delitos contra la libertad sexual cometidos por menores de edad. Aunque también han aumentado las peticiones de ayuda especializada, los datos reflejan que las chicas presentan serias dificultades para detectar ciertas manifestaciones de violencia en su*



*propio comportamiento, tanto en el grupo de iguales como en sus relaciones afectivas.*

*Mugimendu feministak eta adituek horien arrazoiak genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzarik ez izatea eta familietan eta eskola-inguruneetan gizarte-balio egokiak transmititu ez izana direla adierazten dute. Era berean, ohartarazten dute adingabeen artean genero-mito eta -estereotipoak hedatzen ari direla, baita haurren sexualizazioari eta pornografiaren bidezko sexu-hastapen goiztiarrari buruzkoak ere, neurri handiagoan, ohiko erabilerako sare sozialetan. Kasu askotan, gainera, biktimen sinesgarritasunik eza antzematen da, eta horrek eragotzi egiten du esku-hartze goiztiarra eta erreparatzailea, adingabeei egindako sexu-abusu eta sexu-erasoen kasuetan.*

*El movimiento feminista y las expertas apuntan como causas la ausencia de educación sexual de calidad con perspectiva de género y la falta de transmisión de los valores sociales adecuados en las familias y entornos escolares. Asimismo, se alerta sobre la difusión entre los menores de mitos y estereotipos de género, así como la sexualización infantil y la iniciación sexual temprana a través de la pornografía, en mayor grado, en las redes sociales de uso habitual. En muchos casos, se detecta además la falta de credibilidad de las víctimas, lo que impide la intervención precoz y reparadora en los casos de abusos y agresiones sexuales a menores.*

*Horren guztiaren ondorioz, harreman afektibo-sexualen eta gizonek eta emakumeek harreman horietan duten rolaren irudi desitxuratua zabaldu da. Sexu-indarkeria hutsaldu eta legitimatu egiten da, emakumeen nahiak eta gorputzak menderatzeko modu gisa. Jokabide larrienek eraso sexualetara eta fisikoetara eramaten dezakete, baita, muturreko moduetan, emakumeen hilketetara ere.*

*Como resultado de todo ello, se ha extendido un imaginario distorsionado de relaciones afectivo-sexuales y del rol de hombres y mujeres en las mismas. Se banaliza y legitima el ejercicio de la violencia sexual como forma de dominación sobre las mujeres, sus deseos y sus cuerpos. Los comportamientos más graves pueden derivar hacia las agresiones sexuales y físicas e incluso, en sus formas más extremas, en los asesinatos de mujeres.*

*Horren guztiaren aurrean, euskal erakundeek eskura dituzten estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar dituzte, emakumeek eta neskek bizitza garapen osoa izan dezaten, askatasun- eta segurtasun-baldintzetan. Hain zuzen ere, beraien desirak, afektuak eta sexu-portaerak derrigortzerik eta indarkeriarik gabe adieraz ditzaten, genero-estereotipoak eta genero-aginduak alde batera utzita.*

*Ante todo ello, las instituciones vascas han de promover todas las estrategias y mecanismos a su alcance para que las mujeres y las niñas tengan un desarrollo de vida pleno, en condiciones de libertad y seguridad. En concreto, para que puedan expresar sus deseos, afectos y comportamientos sexuales sin coacciones y violencias, al margen de los estereotipos y mandatos de género.*

*Kuadrillak, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak diren aldetik, udalerritan berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko bizikidetzarako baldintzak bultzatzeko arduradunak dira. Hori dela eta, Arabako Mendialdeko Kuadrillak konpromiso hauek hartzen ditu:*

*Las Cuadrillas, como instituciones más cercanas a la ciudadanía, son responsables de favorecer las condiciones para una convivencia igualitaria y libre de violencias en los municipios. Por tanto, la Cuadrilla de Montaña Alavesa se compromete a:*

- Indarkeria matxista prebenitzeko*
- Articular/ mejorar/ reforzar la*





tokiko estrategia  
eratzea/hobetzea/indartzea,  
adingabeen artean sexu-indarkeriari  
aurre egiteko egiturak, baliabideak,  
zerbitzuak edo programak ezarriz.

- Biktima adingabeen inguruan sexu-indarkerien antzematea eta arreta goiztiarra gaitzea/hobetzea, tokiko koordinazio-protokoloen bidez.
- Sexu-indarkerien biktimekin esku hartzen duten profesionalen prestakuntza-programak diseinatzea/ezartzea/eta ebaluatzea
- Sentsibilizazio-programak diseinatzea/garatea/hobetzea herritarrekin, eta bereziki gurasoekin eta irakasleekin, IGEen bitartez, genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzaren beharrari buruzkoak.
- Hezkuntza ez-formaleko espazioetatik hezkuntza-prozesuak garatzen laguntzea, adingabeen indarkeria matxistaren aurkako jarrerak indartzeko.

Konpromiso horietan oinarrituta, honako ekintza hauek proposatzen dira:

- Neskei eta nerabeei zuzendutako ahalduntze-programak indartzea, sexualitateari, bikote-harremanei, maitasun erromantikoari, autodefentsa feministako tailerrei eta abarrei buruzkoak
- Mutiko eta mutilei zuzendutako esku-hartzeak abian jartzea, afektibitatea, harreman-ereduak, maskulinitate-ereduak edo rol sexistak eta parekidetasuna gainditzeko estrategiak lantzeko.
- Indarkeria digitala prebenitzeko

estrategia local de prevención de la violencia machistas disponiendo las estructuras, recursos, servicios o programas para hacer frente a la violencia sexual entre personas menores.

- Habilitar/mejorar la detección y atención precoz de violencias sexuales en el entorno de las víctimas menores a través de los protocolos locales de coordinación
- Diseñar /implementar/y evaluar programas de formación de los profesionales que intervienen con víctimas de violencias sexuales.
- Diseñar/desarrollar/mejorar programas de sensibilización con la ciudadanía, y especialmente madres, padres y profesorado, con las AMPAS, sobre la necesidad de una educación sexual de calidad con enfoque de género.
- Contribuir desde los espacios de educación no formal a desarrollar procesos educativos que refuercen las actitudes contra la violencia machista en menores,

En base a dichos compromisos, se proponen las siguientes acciones:

- Refuerzo de los programas de empoderamiento dirigidos a las niñas y adolescentes sobre la sexualidad, relaciones de pareja, amor romántico, talleres de autodefensa feminista, ...
- Puesta en marcha de intervenciones dirigidas a los niños y chicos para trabajar la afectividad, los modelos relacionales, los modelos de masculinidad, o las estrategias de superación de roles sexistas y la paridad.
- Elaboración de estrategias de



*eta hari erantzuteko estrategiak lantzea, indarkeria matxista mota berri horiei ere aurre eginez.*

- *Udalerriko adingabeekin hezkuntza-prozesuak indartzea, BELDUR BARIK programaren eta tokiko beste ekimen batzuen bidez.*

*Era berean, herritarrei dei egiten diegu, azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunean, haien udalerrietan deitutako mobilizazioekin bat egin dezaten.”*

Bertaratutako bederatzi batzarkideek aho batez onartu dute emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna dela eta proposatutako adierazpena.

*prevención y respuesta a la violencia digital, combatiendo también estas nuevas formas de violencia machista.*

- *Reforzar procesos educativos con menores del municipio a través del programa BELDUR BARIK y otras iniciativas de impulso local.*

*Asimismo, hacemos un llamamiento a la ciudadanía para que este 25 de noviembre, se una a las movilizaciones convocadas en sus municipios con motivo del Día internacional para la eliminación de la violencia hacia las mujeres.”*

Se aprueba por unanimidad de los nueve junteros y junteras asistentes la declaración propuesta con motivo del día internacional para la eliminación de la violencia hacia las mujeres.

#### **5.- PRESIDENTZIAREN INFORMAZIOAK ETA ESKAERAK ETA GALDERAK**

Presidenteak jakinarazi du datorren asteazkenean, abenduak 27, egingo dela bilkura, eta saio horren ondoren kontuen batzorde berezia egingo dela. Hori dela eta, hurrengo bilkuran hainbat gai aipatuko ditu.

Aztergai gehiagorik egon ez denez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du, goian aipatutako eguneko 13:21ean. Eta, aztertu dena eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egiten dut. Akta hau hurrengo bilkurara arte ez da onartuko. Gerente-letradua naizen aldetik, nire sinadurarekin ziurtatzen dut akta hau, eta presidente jaunak sinatzen du.

**PRESIDENTEA**

**EL PRESIDENTE**

D. EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ jn.

#### **5.- INFORMACIONES DE PRESIDENCIA Y RUEGOS Y PREGUNTAS**

El presidente informa que, dado que se celebrará una sesión el próximo miércoles día 27 de diciembre y que tras la presente sesión se va a celebrar comisión especial de cuentas, comentará varios asuntos en la próxima sesión.

No habiendo más asuntos que tratar, el Sr. presidente levanta la Sesión, siendo las 13:21 horas del día arriba indicado, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta, que queda pendiente de aprobación hasta la próxima sesión que se celebre, y que firma el Sr. presidente y certifico con mi firma como gerente-letrado.

**GERENTE-LETRADUA**

**GERENTE-LETRADO**

D. ÁLVARO CASTILLO CORDERO jn.